

MIQUEL SIGUANI GORAZARRE!¹

Bizitza oso oparoa izan du Siguanek. Irakaslea eta idazle nekaezina izan da beste gauza guztien gainetik. Gerra garaian hasi zen irakasle lanetan, liburutxo eder batean ongi kontatzen digun bezala. ([La guerra als vint anys](#), Miguel Siguán Soler, Barcelona : La Campana, 2002. Bada gaztelerazko bertsioa ere). Frentean, anarkistekin ibili zen bera, soldaduei irakurtzen eta idazten laguntzen hasi zenetik ez dio utzi irakasteari. Azken hitzaldia, 2007ko irailean, Oviedon, AEAL elkarteak antolatutako kongresuan, berari eskainitako gorazarrean entzun nion, Espainiako Psikolinguistikaren historiaz. Beti bezala, ez paperik, ez power pointik, buruz, aurkeztu zigun gaiari buruzko sintesi zorrotz eta aberatsa.

Ezinezkoa da Siguanen lanaren laburpen txikia egitea, hain izan da oparoa bere ekoizpena! Bera izan da Espainian, eta gure artean ere bai, hizkuntzari begiratzeko modu berriak, modu egokiagoak, erakusten ahalegindu den horietako bat. Bartzelonako Unibertsitateetik abiatuz, bultzatu du Siguanek beste inor gutxi ikusten zuen jakintza arlo askoren iraultza. Hizkuntza zientzien ikusmira zaharkitua eta zurruna apurtzeko mugimendu eragilea berari esker indartu zen hirurogei eta hamarretatik aurrera, batez ere bere Europako psikologia eta filosofia ezagutzei esker. Katalunian eta gure artean, psikolinguistika eta soziolinguistika gaiak lur landuak aurkitzen zituzten, baina Espainian oro har, oso nekeza zen hizkuntza zientzien tradizioa apurtzea. Bere abileziari eta zabalkunde lan eskergari zor zaio hizkuntzaren jabeakuntza eta irakaskuntza, hizkuntza gutxituen normalizazio eta plangintza politika, elebitasuna eta eleaniztasuna, ama hizkuntza eta atzerriko hizkuntzen irakaskuntza, inmigrazio hizkuntza, eta beste hainbat gai, hizkuntzaren giza izaera ulertu ahal izateko ezinbesteko gaiak denak, gure artean ere ikergai bihurtzea eta arlo horietan hainbat tesi, hainbat argitalpen, hainbat kongresu eta ekitaldiren eragile izatea.

Gai nagusi guzti horietan ikertzaile izan da, baina azpimarragarria da zeinen dibulgatzaile ona den Siguan. Gaiak eta ikerlariak beste inork baino lehenago ikusi ditu Siguanek, eta gure artean oso gutxi ezagutzen zituen izenak, eta haien lanak, eta askotan pertsonak berberak ere bai, bere Bartzelonako Unibertsitate maitearen eskutik gureganatu ditu. Wallon, Zazzo, Piaget, Vigotsky, Bajtin, Ajuriagerra, eta beste hainbeste jakintsuren ekarpenak Siguanen argitarapenetan ikusiko ditugu, oso ezagunak bihurtu baino askoz lehenago. Begi bereziki azkarra izan du Siguanek hizkuntzaren inguruko arloetan aurrerapena non zegoen ikusteko eta modu ulergarri eta eragilean aurkezteko.

Nolanahi ere, ez dugu behar beste aurreratu aipatu hizkuntza zientzietan. Tradizioaren pisua, eta tradiziorik antzuenarena esango nuke, handia da oraindik Espainian, eta gure inguruan egiten den hizkuntzalaritzan ere bai. Horren ondorioz hizkuntza zientzia gehienak arazoak dituzte behar bezala garatzeko, iker arlo indartsu bihurtu eta gure gizarteak behar dituen erantzun berriak eskaintzeko, nahiz eta laborategirik, elebidun eta eleanitz gizarte laborategi aberatsenak, eskuera ditugun Badugu Siguanengandik zer ikasia hain maisuki egin duen lanagatik.

Itziar Idiazabal

UPV-EHU, Euskal Filologian katedraduna

Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren zuzendaria

¹ Artikulu hau, 2008ko maiatzaren 2an Berrian argitaratu zen Miquel Siguanek 90 urte egin zituenean, hain zuzen ere. Orain, zendu berria denean (2010/05/09), beste bide batzuetatik zabaldu nahi genuke gorazarre gisara.